

KAFE ANTZOKIA, ITXITA

Euskara arnasarik gabe Bilbon

 **EUSKARA /** Patxi Gaztelumendi

Bilboko Kafe Antzokiak 16 hilabete darama itxita eta euskarak arnasmune garrantzitsua galdu du. Goizeko lehen kafearen, eguerdiko langileen bazkarien, euskaltegi-ikasleen solasaldien, lagunarteko tragoen, kontzertuen eta bestelako emanaldien azalean euskara dago. Eta azalek elkar ukitzen ez dutenean, azalak urrun daudenean, euskara hori itzali egiten da.

2020ko martxotik itxita dagoen aretoa da Kafe Antzokia. 50 langile aritzen dira asteko zazpi egunetan bertan lanean. Goizean lehen kafea hartu, eta bezeroak

Hamasei hilabete darama itxita Kafe Antzokiak. Ostalaritzak, langileek, kultur sortzaileek eta euskarak espazio garrantzitsua galdu dute. Aritz LOIOLA | FOKU

egunkaria irakurtzen duenetik, eguneroko bazkariak, arratsaldeko tertulia eta kultur saioak, gaueko emanaldi eta kontzertuak, eta osteko parranda eta hartu-emanek definitu dute Bilboko Kafe Antzokia azken 25 urteotan. Euskarak irabazi duen gunebizia Bilbon. Arnasmunea. Orain egoerak itota dauka hizkuntzaren inguruko jardueraro hiriburuko erdigunean. Bizitzak aurrera egiten du, baina euskara barik beharbada. Arnasestuka arduradunak, noiz zabaldu ahal izango. Eta bitartean, Gabriel Aresti euskaltegi-ikasle eta irakasleak bestelako jardueretarako espazio

eta egitaraurik gabe; umeen aisialdiko egitaraua bertan behera, baita ere musika eta antzerki jardunaldiak, eskolaz kanpoko ekintzak, bertso saioak, kultur hitzorduak, hitzaldiak, kontzertuak.... zerrenda amaigabea. Guztiak bizitza eta hizkuntzarekin lotuak.

Koronabirusaren krisiak, pandemiak ekarri duen egoera berriak eta distantzia sozialak jendea euskararengandik urruntzea eragin du.

«Bilbon euskaldunok asko nabaritu dugu Kafe Antzokiaren hutsunea. Oro har, euskaldunak ahulak bagara, pandemiak gure ahultasun hori areagotu egin du», esanez hartu gaituzte Isa Isazelaiak eta Jabi Zabalak. Gabriel Aresti euskaltegi-ikasleak arduraduna da Isazelaia eta Algara konpartsako kidea. Zabala Zenbat Gara elkartean ari da buru-belarri, komunikazio zereginetan, Kafe Antzokiaren eta inguruko dinamika ezberdinak plazaratzen eta lau hai-zeetara zabaltzen. Egoerak behartuta, Bilbon euskarak duen arnasmune nagusietako baten egoeraz mintzatu gara beraiekin. Itolarrian daudela diote, euskaldunok leku eta dinamika garrantzitsuegia galdu dugula azken hilabeteotan; eta horren eraginaz mintzo dira, arduratuta.

Gabriel Aresti euskaltegia Euskal Herriko handiena izango da. Bilbon ikasle gehien baten dituen da, eta Kafe Antzokiaren inguruan antolatua duten ekosistemaz mintzo dira bertako arduradunak: «Guk hemen ekosistema bat daukagu, guretzat oso garrantzitsua dena, baina Bilbotik begiratuta txikia da, hondartza batean hondar ale bat besterik ez, be-





Kafe Antzokiko arduradunek, dena ondo bidean, urrian berriz zabaltzea espero dute. Aritz LOIOLA | FOKU

harbada; baina guretzat oso interesgarri eta baliagarria. Ikasleak euskaltegia etortzen dira. Ezagutza lantzeko lekua da Antzokia, euskaltegian egi-ten duten ahalegina osatzen dute gero Kafe Antzokian; idazleak ezagututa, musika eta

kulturan barneratuta, euskaraz bizi daitekeela ikusiz... har-
tu-emanak eta erreferentzia kulturalak dira».

Euskaltegiko ikasketa or-
duak ez dira aski hizkuntza bat ikasteko, euskaraz bizitze-ko baliabideak behar ditu eus-

«Bilbon euskaldunok asko nabaritu dugu Kafe Antzokiaren hutsunea. Oro har, euskaldunak ahulak bagara, pandemiak gure ahultasun hori areagotu egin du»

«Hizkuntza batean berebiziko garrantzia du harremanak. Pandemiak kontrakoa ekarri digu: distantzia. Eta horrek izugarri eragin dio hizkuntzari»

kara ikasi nahi duenak. Kafe Antzokiak ia 24 orduz eskain-
tzen dio hori bertaratzen de-
nari. Euskaraz eta euskaratik.

«Euskararen arnasestua pande-
mian agerikoa da, Eus-
kal Herri osoan nabari da eus-
karak asko galdu duela, bai
konfinamenduan eta baita on-
doren jende bilkurei ezarrita-
ko mugen ondorioz ere», min-
tzo da Jabi Zabala. «Bilbon,
erdara nagusi den beste leku
askotan bezala, maiz gune eta
une zehatz batzuei loturik da-
go euskarazko jarduna, lagun
askok etxean edo inguru hur-
bilean euskararik ez dutelako,
propio eta ahalegin handiz
sortutako gune eta une horie-
tan baino ez dute euskaraz ari-
tzeko aukerarik. Bilbon Kafe
Antzokia da horrelakoen gune
nagusia; eta uneak, bertan an-
tolatzen diren hainbat hitzor-
du eta ekinbide».

HARREMANAK ETENDA

«Lehen, euskaltegian harre-
manak bultzatzen genituen,
hizkuntza batean berebiziko
garrantzia dutelako harrema-
nek. Pandemiak kontrakoa
ekarri digu: distantzia. Horrek
izugarri eragin dio hizkuntza-
ren inguruan gabiltzanoei; kla-
seak mantendu ditugu, baina
zailtasuna areagotu egin da»,
iritzi dio Isa Isazelaiak.

Hizkuntzarentzat oztopo
gehiago. Ikasi nahi duenaren-
tzat, zailtasun areagotua. Fisi-
koki aldendu, eta espazio be-
rrien gabezia. Gabriel Aresti
euskaltegian, oztopoak oztopo
eta arauak arau, saiatu dira

kultur programazio propioari
eusten. Bide telematikotik ba-
tzuetan; kalean beste modura
eginez ekitaldiak; Kafe Antzo-
kian egin ezin direnak Alde Za-
harreko Bira kulturgunean an-
tolatuz; Euskararen Etxera
irteerak eginez... «Saiatu gara
ikasleak klaseetatik ateratzen,
baina 25 urtean eskura izan
duguna, orain inoiz baino
gehiago faltan botatzen du-
gu».

25 urte luzez, euskararen bi-
zitzaren antolatze leku garran-
tziatsua izan da antzokia. «Kafe
Antzokiak 14 hilabete darama-
tza erabat itxita. Ezaguna eta
ikusgarria da bertoko gaueko
jarduna, agerikoa eguerdieta-
ko jatetxearena ere, baina
ikuspegi soziolinguistikoa
duen begirada zorrotzago ba-
tek erreparatuko dio euska-
rentzat horrelako arnagune
bat itxita egoteak zer suposa-
tzen duen. Jendea biltzeko
ezintasuna sumatzen ari da
Kafe Antzokian, ez bakarrik
aretoa itxita egoteagatik; mu-
rriazketek era guztietako jende
bilkura fisikoei eragiten diete,
eta euskararen bizigarriak dira
horrelako asko: jaiak, hitzal-
diak, aurkezpenak, afariak»,
nabarmendu du Jabi Zabalak.
Eta jarraian, sententzia: «Dis-
tantzia soziala gorde beharra
euskararekiko urruntzea bila-
katu da bilbotar askorentzat».

EUSKALTEGIAN ERE JAITSIERA

Bilboko erdigunean dago Kafe
Antzokia. Done Bikendi kaleko
eraikin berean, aretoaren gai-
neko solairuetan, Euskal He-

rriko euskaltegirik handiena dago, ikasle kopuruari dagokionez. Sektore osoan bezala, aurten nabarmen jaitsi da matrikulazioa, pandemiak eragindako beldurraren ondorioz, eta ikasgela bakoitzean sar daitekeen ikasle kopurua edo ratioa ere jaitsi da. Gainera, euskara hurbiltzeko, euskaraz murgiltzeko, antolatzen dituzten ekitaldiak, jaiak, afariak, Algara konpartsaren inguruko festak eta bestelakoak ezin izan dituzte antolatu, ez barruan eta ez kanpoan. Txangoak egiteko zailtasun ugari izan dute, eta Bilbon horren garrantzitsuak diren Santo Tomas azoka, Santa Ageda kantu eskea edo bestelako ekimen kulturalak bertan behera utzi behar izan dituzte. Izan ere, 15 hilabeteotan denetarik gelditu da bidean. Eta hizkuntzaren horrek daukan eragina da orain aztertu beharrekoa.

HARREMANETIK ELIKATZEN DA

Kafe Antzokia ez da soilik gauari emandako lekua. Goizean goiz hasita, euskaltegiko ikasle eta irakasleek betetzen dute kultur gune honen metro karratu bakoitza. Kafea hartu, ikaskideekin elkartu, hitz egiteko geratu, kultur ekitaldiak antolatu eta bestelako bizitza soziala eskaintzen diote Gabriel Aresti euskaltegiko kideek antzokiari.

«Pandemia honek ez dio ezer onik ekarri gure hizkuntzari. Harremanetik elikatzen da euskara, eta hori izan da, hain zuzen, bertan behera geratu dena», esan du Zabalak. Guraso bezala ere mintzo da bera, itxialdi garaian etxeetan eman ziren egoerak aztertuta, hizkuntzak jasan zuen galera eta kaltea nola konpondu as-



matu ezinik. Kezkatuta dago, Bilbo bezalako hiri batean, berez zaurgarria den egoera bat erabat okertu delako. Eta horrek, zelan ez, kezka eragiten dio, eta handia. «Etxe askotan umeek euskaraz ikasten duten arren, gurasoek ezin izan diete lagundu; euskararekiko transmisioa eten da. Gauza bera gertatu da helduekin, euskaltegian izena eman, baina giro euskaltzaletik kanpo, eskaintza kulturalik gabe, hizkuntza berreskuratzeko gaitasuna asko murriztu da».

«Euskara nagusi den beste giro gehienetan bezala, hauskor samarra da ekosistema hau eta elementu baten faltan desorekak sortzen dira. Konfinamendu ostean igarri da D ereduko ikasgeletan ere, oro har, elkarrekin ez egoteak erdararako joera sustatu duela. Bada, helduen kasuan ere gertatzen da: familia erdaldunetakoak dira gehienak eta ha-

Gabriel Aresti euskaltegiko ikasleak atsedenaldi batean elkarrekin solasean itxita dagoen Kafe Antzokiaren atarian.
Aritz LOIOLA | FOKU

rremanak familiara murrizteak eragin du euskara gutxiago erabiltzea», esan du Zabalak.

GARRANTZIRIK EZA

Pandemia garaian, hizkuntza bigarren mailako gauza izan dela nabarmendu nahi izan dute Isazelaiak eta Zabalak. Adierazpen garrantzitsuenak egiteko gaztelania lehenetsi dela eta administrazioaren jarraera lotsagarria izan dela deritzote euskaltzaleok.

Kafe Antzokia ez da soilik gauari emandako lekua. Goizean goiz hasita, euskaltegiko ikasle eta irakasleek betetzen dute kultur gune honen metro karratu bakoitza

«Pandemia honek ez dio ezer onik ekarri gure hizkuntzari. Harremanetik elikatzen da euskara, eta hori izan da, hain zuzen, bertan behera geratu dena», esan du Jabi Zabalak

Ikasle-irakasleek goizez eta arratsaldean antzokia dinamizatzen dute. Euskara entzuten da elkarriketa gehienetan, eta horrek animatzen du kaltetik datorrena ere euskaraz ari- tzeke. Orain hori guztia eten da. Kultur arloan, ostalaritzan, hizkuntza eta bizitzaren alorrean atea itxita eta jarduna geldirik dago. Kulturen eta ostalaritzan ez ezik, bestelako eraginik ere izan du pandemiak, hizkuntzaren eta harremanen arloan.

Hilabeteak aurrera doaz, Kafe Antzokiko atarian, 2020ko martxoko kartela dago oraindik: egin ziren eta egiteke geratu ziren kontzertu eta kultur ekitaldien zerrenda. Gogoratzeko. *Pause* tekla zapaldu bagenu bezala. Noiz soinua berriz entzungo geratuko gara. Hizkuntzaren doinua berreskuratzeko. Lagunekin geratzeko. Hitz egiteko, bizitzeko.

MIKEL URBELTZ

KAFE ANTZOKIKO ARDURADUNA

«Euskararen motibazio-ezagutza-erabilera soka indartzeko beharrezkoak dira gurea bezalako espazioak»

Bilboko Kafe Antzokiak iazko martxotik darama itxita. Ez dago kaferik euskaltegiko ikasle eta irakasleentzat, inguruko bulegoetako langileek ezin dute bertan bazkaldu, Bilbo eta inguruko euskaltzaleentzako kultur erreferentzia nagusiak atea itxita ditu aspaldian. Ez kontzertu, ez hitzaldi, ez eta bestelako saiorik ere. Mikel Urbeltz Kafe Antzokiaren dinamikaz arduratzen da, eta inoiz baino lanpetuago sumatu dugu. Argazkiak egiteko sartu gara Kafe Antzoki barrura, eta une horretan bilera bat zeukan tabernariekin. Kafe Antzokiaren kultur esperientziatik, arduratik, etorkizunerako bide oparoan baikorra da bera. Kultur sorkuntzak eta hizkuntzak arnasa behar dutelako ari dira udazkenean berriro atea irekitzeko prestatzen.



Irudian, Isa Isazelaia, Mikel Urbeltz eta Jabi Zabala. Aritz LOIOLA | FOKU

Kultur eta ostalaritzaren ikuspegitik 15 hilabete hauek ekarri duten galeraz gain, zer gehiago galdu da Kafe Antzokia itxita egon den denbora honetan guztian?

Kafe Antzokia martxoaren 12az geroztik dago itxita eta, noski, ostalaritza zerbitzuak, gaueko aisia eta ekitaldi guztiak bertan behera geratu dira, horrek gure etxearentzako, langileentzako, hornitzaileentzako, talde eta elkarreentzako zein bezeroentzako dakarren galerarekin. Itxiera 18 hilabetera arte luzatzen bada, eta hala dirudi, 450 ekitaldi inguru galduko dira, bakoitzak dakarren esperientzia edo bizipenarekin. Baina Kafe Antzokia, aurreko guztiak eskainiz, euskararen erabilera espazioak irabazteko eta kultura herritarrei helarazteko sortu zen, gure hizkuntzaren erreferentzialtasuna indartzeko, euskaldungoa trinkotzeko. Erabilera

esparru naturalik gabe, euskararen irakaskuntza hankamotz geratzen da, motibazio-ezagutza-erabilera soka indartzeko beharrezkoak dira-eta gurea bezalako espazioak.

Kafe Antzokia beti irudikatu dugu plaza ireki moduan eta horregatik kalearen jarraipen naturala da; bertan gertatzen diren harreman, lotura, sareetarako gurean dute isla. Ekitaldiek berez duten garrantziaz gain, aretoa betetzen duten herritarrek komunitatea gorpuzten dute behin eta berri, hizkuntza eta kultura zabaldu, harremanak sendotu...

Orain, berri, dena bilakatu zaigu portzentaje, distantzia, dezimal... eta, hain justu, harremanak debekatu zaizkigu mundu distopiko honetan; hau da, egiten dugun guztiaren muina. Kaleak eta plaza –Kafe Antzokia– hustu dira.

Eta ageriago egin zaizkigu gure

nazioaren ahuleziak ere, zeren gutarrak diren nafar, lapurtar eta zuberotarrek are zailago izan dute gure plazan agertzeko.

Zein da egungo egoera, eta zer aurreikusten duzue?

Aretoa ordutik itxita dago eta langile guztiak, 50, aldi baterako erregulazioan gaude. Momentu honetan dauden limitazioek ez dute bideragarri egiten gure jarduna. Gaueko aisia ezin dugu zabaldu eta kontzertu eta ekitaldien aforoa, mugatua, jesarrita eta 1,5 metroko distantziarekin, benetan urria da, %10 inguru gelditzen baita. Irakurtzen dugu kultur ekitaldien ordutegia zabaltzeaz eta (22.00etatik 24.00etara), baina beste murrizketak kontuan izanik, ez dira aldaketa eraginkorrak gure jardueran. Diru galeretara eramaten gaituzten ezarritako aforo

mugatuak, bai eguneko ostalaritza zerbitzuetan, zein kontzertu, kultur ekitaldi eta gaueko aisian, defizitarioak dira, musika, antzerki, dantza talde, areto, promotore... soka guztiarentzat.

Azken hilabeteetan egin diren emanaldiak, gehienbat, titularitate publikoko aretoetan edo egon zitekeen defizita diru publikoz estalitako emanaldi eta jaialdietan egin dira. Guk berri, ez dugu horrelako aukerarik: gure defizita gure heriotza litzateke.

Herri ekimenetik sortuak garenok eta gure lanaren izaera publikoa aldarrikatzen dugunok, gure izaeraren publiko-pribatutasunaren irakurketa partziala dela-eta, beti ezbaian dugu egiten dugun lanaren aitortpena. Horrela, gertatzen da ostalaritza zerbitzuak eta urtero 300 kultur ekitaldi eskaintzen dituen Kafe Antzokia kultur sektoreari emandako dirulaguntzetatik kanpo utzi duela Jaurlaritzak, beste zenbait aretoarekin batera. Gure bi jardun nagusien orekari esker bete ditugu 25 urte. Hala ere, hori ez da laguntzetan islatzen; ez dator bat kultur eta euskalgintza mailan Kafe Antzokiak duen pisuarekin eta sektoreak berak duen garrantzi estrategikoarekin, gure identitatearekin lotua.

Udan itxita egongo da, beraz, Kafe Antzokia. Ikasturte berrian, zer?

Gaur egun daukagun egoera aztertuta eta etorkizunak egoera hobe bat ekarriko duelakoan, urrian zabaltzeko plangintza lantzen gabilta, betiere urrian murrizketak arindu eta gure lana bideragarria izango delako ustean. Iaz 25 urte bete zituen Kafe Antzokiak eta hurrengo 25ak ere egitasmoz eta lanez oparo ikusten ditugu, musika, dantza, bertso, zinema, antzerki sormenez beteak, eta euskaldunen harreman eta sareak trinkotzeko guztiz beharrezkoa den plaza lepo. Euskal kulturaren eta euskalgintzaren sarea txikia da, beste hizkuntza eta kulturekin alderatuta; baina daukaguna da, bakarra, garena, bereziki zaindu beharrezkoa. Behar dugu zabaldu eta arnasa hartu, lagun, bezero, sortzaile eta bidaidez betetako Kafe Antzoki bat ikusi, kulturaz eta aisiatzat gozatzen, orain arte izan direnen etxe eta berrien erakartzaila.